

**ORAINDIK
BIDEA DUGU
AURRETIK**



Eranskina

**Bigarren hezkuntzarako,
batxillergorako,
helduentzako eta hezkuntza
ez-formalerako proposamen
didaktikoa**

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-kanpainia
Espainiako koalizioa

HAMA



2015



Hezkuntza-eskubidearen itxaropena iruten¹

1. helburua: Lehen haurtzarorako arreta eta hezkuntza



© FERRE-CECA

* **Haur pobreak eta gizarte-egoera ahulean daudenak**, eskuarki, ezin dituzte eskuratu lehen haurtzarorako arreta- eta hezkuntza-programak, programa horiei probetxu gehien atera diezaieketenak izan arren, bai osasunaren, bai nutrizioaren, bai garapen kognitiboaren arloan.

* Hiru urte eta gehiagoko umeentzako **haur-hezkuntzako zerbitzuek** hobera egin dute, baina, hala ere, oso urriak dira Saharaz hegoaldeko Afrikan eta arabiar estatuetan.

* **Haur-hezkuntza funtsezko etapa da** umeen garapenean: pertsonalitatea eraikitzeko eta esperientziak zabaltzeko aukera ematen die haurrei, sozializazioa sustatzen du, eta gizarte-desberdintasunak orekatzeko funtzioa betetzen du.

2. helburua: Lehen hezkuntza unibertsala



© Educo

* 1999tik 2011ra bitarteko epean, **eskolatu gabeko haurren kopurua** erdira jaitسي da. Hala ere, 58 milioi haur daude oraindik eskolatu gabe.

* **Eskolatu gabeko haurren erdiak, gutxi gorabehera**, gatazka armatuan dauden herrialdetan bizi dira.

* **2015ean 13 herrialdetan soilik** (datuak jasota dauden 90 herrialdeetatik) lortuko du matrikulatutako ikasleen % 95ek lehen hezkuntza burutzea.

3. helburua: Gazteen eta helduen ikasteko premiak



© Jerónimo Rivero/Entreculturas

* **Neska-mutiek bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa burutu beharko lukete** bizitzarako oinarritzko gaitasunak eskuratzeko (irakurtzen eta idazten, batuketak egiten, komunikatzen, harremanak izaten eta abar ikastea).

* **Hezkuntza ez-formalaren arloko programen finantziazio publikoari** ez zaio oraindik ere arreta ematen. Dena dela, gobernu batzuek nazio-esparruak eratu dituzte, horrelako programak jarraitutasun handiagoz eskaintzeko.

* Munduko herrialde pobre batzuetan **hezkuntza ez-formala** da gazte askok eta gizarte-egoera ahulean dauden helduek ikasteko duten bide nagusia.

¹ Iturria: Guztiontzako Hezkuntzaren munduko jarraipen-txostena. Unesco.

4. helburua: **Helduen alfabetatzea**



© Sergi Cámara/Entreculturas

* **Herrialde gutxi** dituzte heldu analfabetoak helburu dituzten berriazko alfabetatze-programak.

* **Heldu analfabetoen** kopurua handia da oraindik ere: 781 milioi. Haien ia bi heren emakumeak dira.

* **Hezkuntza-politikek** oso arreta gutxi ematen diete gaur egun ere gazteen eta helduen alfabetatzeari. Bost heldutik bat analfabetoa da; lau emakumetik bat analfabetoa da.

5. helburua: **Parekotasuna eta genero-berdintasuna**



© Alboan

* **Genero-parekotasunak esan nahi du** matrikulatutako mutiko eta neskatuen kopuru berdina lortzea. Parekotasun hori funtsezkoa da berdintasunezko gizartea lortzeko, neskatuen eta mutikoen arteko diskriminaziorik gabe.

* **Genero-paritatea lortze aldera**, neska-mutilek aukera berdinak izateko hezkuntza-eredu egokiak behar dituzte, bai eta neskatuak beren potentziala diskriminaziorik eta estereotiporik gabe garatzeko aukera ematen duen hezkuntza ere.

* 2005ean lehen eta bigarren hezkuntzan sexuen arteko parekotasunaren helburua lortu ez zuten **113 herrialdeetatik 18k soilik** dituzte helburu hori 2015erako lortzeko aukerak.

6. helburua: **Hezkuntzaren kalitatea**



© Salva Campillo/Ayuda en Acción

* **Kalitatea funtsezkoa da** irakurtzen eta idazten ez dakiten haurren aukerak hobetu nahi baditugu (haietatik 130 milioi eskolan dauden arren).

* **Irakasle eta ikasle kopuruaren arteko proportzioak** hezkuntzaren kalitateari eragiten dio.

* **1999tik 2011ra bitartean** hezkuntzaren kalitatea % 20 handitu zen, ikastetxe bakoitzeko irakasle kontratatuen kopuruak gora egin zuelako.